

Luis Liz Marzán SER irratian, irailaren 9an 13:00etan

CIC biomaGUNEko zuzendari zientifiko Luis Liz Marzán SER irratiako [Hoy por Hoy Bilbao](#) irratsaia gonbidatu dute (Azul Tejerinak zuzentzen du saioa), BBVA Fundazioak Paul Alivisatos-i eta Michael Grätzel-i emango dien [Oinarrizko Zientzietako Ezagutzaren Mugak](#) sariaren testuingurua aztertzeko. Eguzki-energian eta abangoardiako elektronikan aplikazioak dituzten nanomaterial berriak garatzeagatik eman diete saria bi zientzialariei.

Besteak beste, Paul Alivisatos eta Michael Grätzel saridunen lanari buruz arituko da Liz Marzán; izan ere, funtsezko ekarpenak egin dituzte energia berriztagarriaren ekoizpenean eta azken belaunaldiko elektronikan dagoeneko erabiltzen ari diren nanomaterial berriak garatzeko. Liz Marzánen hitzetan, “nire lanaren gune nagusia ez bada ere, oso lotuta dago”. Hitzordua ostegunean izango da, irailaren 9an, 13:00etan, Radio Bilbaon.